

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak eta Iruñeko alkateak erakundeen arteko koordinazioa indartzeko beharra azpimarratu dute

Lehen bilera egin dute biek gaur goizean Nafarroako Jauregian

Lunes, 14 de septiembre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Iruñeko alkate Joseba Asironekin bildu da gaur goizean, eta bertan, alde batetik, bi erakundeak koordinatzeko beharra azpimarratu dute, eta bestetik, komunikatzeko bideak zabaltzeko beharra finantzaketan edo azpiegituretan, esaterako. Gobernuako Lehendakariak Foru Komunitateko udal ordezkari nagusiekin egin nahi dituen bileretatik lehenengoa izan da gaurkoa.



Barkos Lehendakaria Iruñeko alkate Joseba Asironekin.

Bi ordezkariak bat etorri dira foruzaingoaren eta udaltzaingoaren arteko harremana indartu egin behar dela esateko orduan. Iruñeko saltoki txikiak suspertzeko ere elkarrekin lan egiteko beharra dagoela esan dute, eta proiektua estrategikoak partekatu behar direla ere Nafarroako hiriburuko erdigunea suspertzeko.

Bilkura hasi aurretik, Uxue Barkosek aipatu du plazer handia zela Iruñeko alkatea hartzea, eta azken horrek azpimarratu du gai asko partekatzen dituzten bi erakunde garrantzitsuetako ordezkarien arteko bilkura zela, ezagutzen eta estimatzen diren bi pertsonen artean egindakoa.

Barkos Lehendakariarentzat, erabaki politikoak hartzea ez da Gobernuaren kontua bakarrik izan behar, baizik eta Parlamentuaren eta udal ordezkarien lankidetzaren ere izan behar du. Alde horretatik, udal mapan gertatutako iraulketa garrantzitsuari erreferentzia egin dio, bai eta harremanak izateari ere elkarrekin erronkei aurre egiteko.